

Garaudy, Frantziako komunista herejea?

«EZIN GINDEZKE IXILDU GEIAGO». Onela asten du Roger Garaudy «Sozialismoaren jirabira aundia» («Le Grand Tournant du Socialisme») liburua. Idazlan ontan esan dituanagaitik, Frantziako Komunista Alderdi-ko mai-kideen begi txarra eta erasoak bereganatu ditu.

Bere fibruetak batean ziona da zerako au: oraindik argitu gabeko gauzak ere esateko arriskuan jarri beara dagoela, ditugun bizi-kezkak eta arazoak mai gainera aterako badira. Ez da ixildu eta arriskuan jarri du bere burua. Bañan liburu mamitsu au irakurtzean, somatzen da bai oraindik ere gauz asko gelditu zaizkiola esateko.

Zer esan dan? Beraren antzeko egoeran arkitzen diran komunista gogolariak pentsatzen duten ori bera esan du. Onela jokatzean, Henry Lefevren, Ernst Fischeren eta Milovan Djilasen herejei eta exkomunio bidea aukeratu du; aurreko irurak bezelaxe (bakoitza bere lurrean), bera ere Marxismoaren pentsalaririk aundienetakoa baita.

Garaudy: berrogei ta ama zazpi urte, Frantziako Komunista Alderdi-ko mai-kide, filosofo eta Frantziako Marxista Azterketa eta ikaskizunen Etxeko Zuzendaria, ez dakit zenbat liburu egina, komunisten eta kristueen arteko artu-emanak sendotu naiean «komunisten eta kristueen itxaropenen alkartea» eragin zuena... zergaitik salatzen dute bere mai-kideak gaizkile bezala?

Auetan laburtu dezakegu Garaudyren aurkako sakaleta:

- Kondairazko materialismoa eta klase burruka uzkatzen.
- Zentralismo demokratikua alde batera uztean.
- Soviet-Batasunaren aurka-jartze irrikian eta onartu-eziñoetan.

Sakaleta ontan ataitzen diranak, MARXISMO-LENINISMOAREN ONARRI BER-BERAK dira. «Marxismo gizaikoa (humanista)» aukeratu du Garaudyk. Aldi baten bene-benetako stalinista eta manikeo izan zala aitortzen digu berak; bañan Jruschev-ek argira ekitu zituen Stalinen estakeri bildurgarri auket (Hungriako guda-erasoan, Europako Komunista abertzaleen aurka, Txina eta Sovietien banaketan, berak sozialismoaren esperantza zala uste zuan Pragako udaberriean...), ikar-ikar ikutu zion hitzotza.

Eta ezarian-ezarian, marxismo gizaikoi baten ibil-bidera etorri da. Eta... ez ote dute zer-ikusirik izango Garaudyk artu berri dituen pauso auetan, kristuek in zandako alkarizketak? Ez ote du ontara bultzatu kristuegan arkitu duan borondatea oneko jatoritasunak naiz eta aue-tako asko ez-jakin izan dialektikaren xeetasunetak?

Garaudyk, noski, gaizki ulertu dituela esan du; gaizki interpretatu dituztela bere idazlanak. Beretzako, marxismo guzia gaiztotu dute dogmatikoki bihurtu duten ezkerero. Bere irizpideak eta Frantziako Komunista Alderdia-aren ezberdiñak izatea, ez da, berak, arritzeakoa.

- Orregaitik azterketa berri bat egin dedilla Frantziar ezker-erakundeetan, klase artuemanak zer-nola arkitzen diran ikusteko 1970'gnan. Onela, produzio-inderrek eraberritzean sortutako aldaketak bere ortan agertu dituzten.
- Zentralismo demokratikua, Leninek erabakiak arteko eraiki zuan bidea dala; eta berez, bi esanai dituela: ZENTRALISMOA ETA DEMOKRATIA.
- Zentralismo zero dala; geienien iritzira artutako erabakiak, GUAZIAK betetzea.

Demokrazia, berriz, betebehar au dela; militante bakoitzari zor zaion informazio zuzen eta garbia. Onela bakarrik artu al-izango dituelako erabakiak jakinaren gañian eta bear dan ardurarekin.

- Ez dela Sovietarren aurka joatea, stalinismoa eta neo-stalinismoa gaitzestea, sozialismoaren aurkako astakeri aundienak diranez; eta guzi au, ikusteko moduan agertu dala Pragun.

Bañan, orain ere Moskuk nai duna egingo da. Garbiketa zurrumuruak entzuten dira eta «garbituetako» bat Garaudy bera izango da. Ez dugu uste Alderdi-ko botako dutenik, bañan bai mai-kidetzua politikua kenduko dituela.

Gaur ere, Austriako Komunista Alderdi-ko botu zuten Ernst Fischer marxista gogolariak ziona betetzen da «EZ LUKELA TOKIRIK IZANGO MARXK USTE DUGU ZENBAIT KOMUNISTA ALDERDIETAN, GUZIA DOGMA BIURTU BAI-DUTE ETA GOGOIA ILLOBI BATEN GORDE».

Gizona teorietan eta eginetan

Zugaitza fruituaren arabera ezagu ditekean bezala, gizonaren izana bere obretan ezagutu beharra dago. Buruz jokatzekotan ez dut uste beste biderik dagoenik.

Kondaira osorik aztertzea lan gaitza bada ere, gertaera buruz argiro erakusten dute gizonaren izana nagusiak zein eta nolakoak diran. Asia'n, Ozeania'n eta Ameriketan zibilizazioaren etorrera aztertzea, esate baterako, oso gogoangarria da.

Brasil'go izugarrikeriak diralata, igaz Levi Strauss'en eta beste anitz etnologiarien ikara-deiadarrek irakurri genituen munduko aldizkarietan: egun haue-ataxe ari baita bururatzan Brasil'go Matto Grosso deritzen oihan zabalean genozidio oso bat. Piztiatik berak baino basakiago pertsegiturik, ahal duten bezala izkutaten eta gerizatzen sailatzen dira azken 60.000 indioak. Hauen egunkari, ordea, mugaturik daude; eta irteerarik gabeko bide batean barre-na abiarazi dituztela ba dakite. Bertako indioak akabatzeke bide guzikiak ontzat ematen dira: arseniko po-zoindutako oturutak ematea, eritgetiatik ateratako maindire infek-tuak basoko arboletan zintzilika-tzea, ondartzetan poizozin kutsatuta-ko azukre-potoak uztea, metralleta-zurrak soilteza, haurrak aidea-ria bota eta baionetaz-puntetara bil-tzea, abioiez herria bonbakatzea, eta abar. Danak on, zibilizazioa (eta ne-goizko...) aurrerazteko egiten baifitir!

Nor arduratuko da, bestalde, baze-ter urrun haiegan gertatzen dana? Inor ez. Viet-Nam'go arazoak, Txeko-lobakiak, Biafra'koa, Israel-Palestina'koa, toki askotako langileria-rena, nabarmenagoak dira; eta lasai bizi gora. Zer axola, beraz, Brasil'go oihanetan gertatzen dana?

Etnologiararen dei etsiek zerbait lortu dute: Indioen Laguntzaile Era-kunde'tik («laguntzaile», bai...), «hiltzaile» gisa salatutik, 130 fun-tziolari bota berriak dira. Ba da zerbait, agian. Baina genozidioa ia osatu-rik bide dago; eta Brasilia ederra ez omen da «Indioen gorputzei eraikitako monumentoa baizik».

Brasil'go kolonizazioa odoletan egin da. «Bandeirante» dalakoen garaiztapena indioen hiltzikaren bidez

obratu da, hauen gorputzak milaka metatuz. XIX-gn, mendearen, kautxo-aren explotazioak indioen akabera ekarri du eskualde askotara.

Brasil'go kasoa ez da inundi-ere bakarra. Elkin jaunak liburu bat argitara berri du Australia'ko indioei buruz. Jakina danez, australiarrek, nahiz teknikaren aldetik atzeratuak izan (Harri-Aroan zeuden XIX-gn mende-aren), musika-kontuan eta pintura-kontuan batez ere, aurreratuak ziran oso; eta tekniko kaskarrak baziran ere, etorri haundiko artistak ziran. Totemismoaren bidez, gizarte-tajuketa eta ideia-tajuketa zuhar bat lortu zuten; eta australiarren giza-dia ez egotean desegiteko zorior, eta ez gutxiagorik ere. Beren giza-te- mundua gotorra zuen europarrak hara azaltzean; eta beren idieiek ba zira bane-orekarik. Mendebaldetarrak 1788-an hara iristean, 300.000 indio zeuden Australia'n, 50 leinu edo tributan banaturik. Gaur 60.000 besterik ez dago! Eta hau beraz ere azkeneko urteetan geriza-bide gogor-rrak hartu diralako. 1930-ean orain-dik ere «zigorraldiak» egiten ziran Austria'n, mendebaldetarreko «er-respeturik aski» erakusten ez zuten australiarrek hiltzeko. Zibilizazioa eta genozidioa berriz ikusi ditugu alkarturik.

Ameriketako indioen genozidioa, era berean, beste bi horien mailakoa izan da. California'ra uriak iristean 250.000 indio zeuden, 21 etniatan zatitirik. 1850-ean California'n urrea zegoen fama zabaldu zan; eta han-mer urtetan, 1860-orduko beraz, indioen %eko 60-a ezerezatuta izan zan. Kroeber andreak berriki jakina-razi duenez Yana zeritazan tribuaren kondaira hau izan zan: 3.000 Yana 1849-an, 50 Yana besterik ez 1865-ean... Beste adibide bat: 1876-eko Apirilaren 4-ean, 170 indio Jaiokari eskerak ematen ari. Zuriak etorri; batere ere utzi gabe dan-danak kara-binaz hil zituzten!

Hilketa hau, dana dala, ez da soil-lik jaun. Indioen baloarak eta kultu-ria ukatuak, debekatuak eta fundi-tuak izan dira, guztiz arrastorik gabe utzi arte. Levi Strauss'en lanen on-doren, etnologiariek ongi dakitenez, totemismoa mitoen mailako hizkun-tza bat da, eta gizonaren izana uler-tzeko gutziz interesgarria. Danok da-ku, bestalde, edo jakin egin behar-ko genuke, zibilizazioetan ez dala bata BEREZ beste baino aurreratu-agoa, ZENBAIT BALOREREN AR-ABERA BAIKIZ (gaur, esate baterako, teknikari dagokionez eskuarki). Bra-sil'go, Australia'ko eta California'ko kultura horietan, munduari buruzko ideia oso bat zegoen; ez beharbada gurea baino alienatuaogo. Zibiliza-zioa eta genozidioa batera gertatuz, beraz gure zibilizazioaren balioa jar-ri behar da zalan-tzan; eta ez herri horiena.

Eta ez pentsa, ez, hau gaurko gi-zartekarak sortu duenik. Nahki badu-zu, irakurle, urrengo batean Gengis Khan'ez edo Stalin'ez mintzatuko ge-ra apur batez. Beharbada Antxieta jesuitak, España'ren kolonialismoa defendituz nahiz, azaldu zuten ongien-nik eta lotsarik gabe zapalketa asko-ren kaka: «Ezpata eta burdinazko zigorra dira FEDEAREN ALDEKO lan-abetesik onenak... Juan-Belarra na-gusi? Ala Egia aitor-arazi nahia? In-dioen kultura, aipatu ditudan kaosoa-ten, zozokeria hutsak diran seguran-tzian hartzen da. Gerra-gizonak eta misiolariak ez dira alkartagandik oso urrun ibili ohi; eta indarra eta Fede-berria ere ez.

Gizonaren basakeria ez da beti, hiltz batez, gizarte-kera baten edo besteren fruitua, sorkurazkoa eta sa-konagoa baizik.

EUSKO-JOKABIDEAK

Eusko-gogoa itoko ete-dauskuen bildurretan ta samintasunean bizi izan gara bein baño geiagotan eta ez giti be.

Inork otera ezin dagikun gogo ori geuk osteria alperrik galdu izan oi-dogu.

Gizonkiago beti jo genikegunean edo gure baxter, uri ta inguruak edergarriagotu genikezuean, zzen-bat ardura ta alegin izan oi-ditugu orretarako?

Aundikeriz kutsututa eusko-joka-bide bakarrak beste gizon-talde edo errialdeak egin izan dituen antzera ikurriñetan, oi-alaritzean edo aizeak eta denporak berez daroiki-gezan jokabideetan jarri izan oi-di-tugua.

Gure artean alkartasun-min sako-nagua sortuarazoten, gure etxe ta kaleak edo uriak edargarriagotzen ardura giti izan dogu.

Guk maite dogula diñogun Eus-kalerra edertoguzten aterik-ate, baserrik-baserri, ikastolarik-ikasto-la, leirik-leio, saillik-sail edozein-ek egin genezeguzan edergarrik edo epaingarrik jantziten giti oi-dogu.

Aoz danok dirudigu oso abertza-le zintzo, egitez oso giti, gure erri-ai ta gizataldei ondo jatorregiozen egingoak egiten giti baño gitiago.

Ba-daukagu maiko zeregin gure inguru guztia-ri jagoken edergarrik erasoten. Danok edo geenok orreta-ra jo ba-daukegu zerbait egin al-izango dogu urteotan egin diran itxurabakokeriak leuntzen edo eder-garritzen.

Eusko-jokabideetariko bat auxe da: lañoarta baño bera geiago be-giratu; lañoetan giti aldatu genezegunok lurraldean zerbait obeto eratu dagikegun.

Inoren baimenik gabe egin gene-zakeguzan egingoak ez dira giti.

Bakoitzak beretik zintzo jokatu-rik jaso lezakezan saillik zabalak di-rra.

Bizuar-espirituz ta arnasa barru-ri biziarazo dagikun ingurun dauka-gun guztia. Alkartasuna, zuzentasu-na, askatasuna ta aurrerapidea be-ki-guz gure gogo-min: oiñarritu da-giguzan bakoitzak dagikegunez.

T. U.

ZAHARRAK-GAZTEAK-AURRAK

Lehenengo Olatua - Bigarren Olatua - Itxaso zabalak

LEHENENGO OLATUA. Orain berrogei urte gutxi gora behera, euskeraren lehenengo olatua etorri zan. Olatu indartsua. Orduko gazteen (gaurko zaharren) elburua zan: euskera "garbia". Orduan entzuten zan iz bekarra zan:

"euskera garbia" eta "euskera garbia".

Bañan garbizale aiek garbitasunetik garbikerira jo zuten, eta garbizaletasuna on-ona izanik ere, geiegie-rietan erodi ziran.

Ala gutziz ere, "keri" aiek kendu ezkerero, olatu gar-bizalea euskerarentzat probetxugarri izan zala, eta bere fruitu onak utzi zitua ezin ukatu.

BIGARREN OLATUA. Gaurko gazteen (biarko za-harren) olatua. Lehengo olatuaren "garbi" itzaren or-dez, "batu" itza ekarri dute. "Euskera batua", eta "euskera batua" da gaurko gazteen agotan entzuten dan iz bekarra.

Egia esan: euskera garbia bezain ederra eta beaz-rez-koa dugu euskera batua. Batasun onek probetu aundia ekarri dio euskerari. Bañan garbitasuna garbikerian erori zan bezela, gaurko batasuna ere batikerian erori da. Eta garbikeria, zorionez, joan zan bezelaxe, batu-keria ere joango da. Bai, joango da.

Orduan zer?

IRUGARREN OLATUA. Onak irabaziko du. Gaurko ikastoletako aurrak (biarko gazte, eta etziko zaharrak). Hegel filosofoaren sistemaren arauz., alegia: tesis, an-

titesis, sintesis. Tesis dira zaharrak, antitesis gazteak eta sintesis aurrak. Argituko dut gai au.

Tesis da: euskera garbia, bañan zatitua. Onen kontra etorri da antitesis: euskera batua, bañan mordoilloa (euskerantoa). Irugarrena etorriko da, bien gauza onak artuta eta goratuta, sintesis euskera garbia eta batua; gure ikastoletoako aurrak ikasiko dutena.

Sarri entzun izan dut axioma bat bezela: euskeran-er etorkizuna gaurko gazteen eskuetan dagoela. Au ez da egia. Eta gutxiago ere. Humillak izan gaitzen. Lehenengo eta bigarren olatuok "amateur" usak ge-rua euskal arroan. Nai ta nai ez, gure ezikera eta jakin-tza ereldun utsa izan da. Euskera gutxi eta gaizki da-giku. Borondate ona bai, ba dago, bañan jakintza gu-txi gure artean.

Gaurko ikastoletan dabilzan aurrak ez dira "ame-teur" izango, profesional aitua baizik. Gaurko ikasto-letako aurrak eskuetan dago euskeraren etorkizuna. Auek izango dira euskeraren sendagile aitua, gu sasi-mendikiak besterik ez gera.

Gaurko ikastoletoako aurrak, guk baino asarre gu-txiagoz eta buru gatagoz, lehenengo olatutik euskera garbia artuko dute, garbikeriak kenduta; eta bigarren olatutik batasuna artuko dute, batikeriak bazartuta, eta euskera garbia eta batua egingo dute. Bai euskera garbi eta batua.

GOIKOETXETA INAKI

Zeruko Argia

ZERUKO ARGIA
Zuzendaria:
**MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA**
Naparroko-Kantauriko ta Ara-goiko Kapuztinoak argitaratua
(Carlos III, 22. Pamplona)
DONOSTIA'n:
Oquendo, 22 Telf. 26666
ARPIDE SARIA:
Barruan 215 pezeta
Korroo batasun-
etako errietan. 265
Aterrietako bes-
te errietan 285
Aidez Aurrez galdetu.
Salmentan (Ale
bakoitza) 5 pezeta

LARRESORO